

Aurkezpen honetan modu bizi eta dinamikoan Terapia Familiarrari gerturatzeko aukera izan dugu.

Lehenik eta behin, teoriaren beharra azpimarratu da konstruktua, abstraktu eta instrumental gisa. Era honetan, teoriarik gabeko esperientzia bizitzeko aukera egon da, are sakonagoa, lengoaiarik gabeko esperientzia pultsionala bizitzeko aukera, psikismoaren izaera primitiboa, hain zuzen ere.

Ondoren, Joxean Artzeren zilbor-hesteak poesia Mikel Laboaren ahotik entzuten zen bitartean, bideoan gametotik jaioberria izatera dagoen prozesua ikusi da. Jarraian, olerkia Terapia Familiarrak behar duen harreman-hipotesiaren zazpi arloetatik aztertu da, hau da;

1. Norberaren bizi zikloa eta familiarena.
2. Jatorrizko familia eta oinarrizko familia.
3. Mitoak/arauak/rolak/.
4. Gurasotasuna/bikotetasuna.
5. Familiaren antolakuntza.
6. Familiaren harremantzeko modua.
7. Komunikazioaren ezaugarriak.

Era honetan, familiaren mapa eraikitzeke oinarrizko ardatzak azaldu dira.

Azkenik, Terapia Familiarraren garrantzia azpimarratu da, izaera psikoetatik neurotikoagoetara saltoa ahalbidetu dezakeena eta, era berean, pertsonaren sarearen, hala nola, zerbitzu saretuen, garrantzia azpimarratu da.